

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aizpea Goenaga Mendiola

*Donostia,
Gipuzkoa
(1959)*

Aurkibidea



Biografia



Urbieta kalean jaioa. Zazpi senide ziren. Guraso biak donostiarrak zituzten. Amona Ixabelek 'Aurrera' taberna zeukan, eta gurasoek tabernarekin jarraitu zuten. Kultur mugimendu handiko tokia zen: bertan entseatzen zuten Ez Dok Amairu eta Jarrai taldekoek, besteak beste. Familia oso euskaltzalea eta konprometitua zen, eta ikastola klandestino batean ibili zen Aizpea, Karmele Esnal andereñoarekin. Euskaraz egin zituen oinarrizko ikasketak ere, lizeoan. Magisteritza egin ostean, Madrilera joan zen Arte Eszenikoak ikastera. Interpretazioa, zuzendaritza eta dramaturgia ere ikasi zituen gero. Antzerkian, telebistan eta zineman ibilbide luzea egin du, zuzendari, aktore, gidoilari eta idazle moduan. Etxepare Institutuko zuzendaria ere izan zen. Artista-familia da Aizpearena, hiru aktore belaunaldi batzen dituen: Juani Mendiola ama aktorea zen, Barbara Goenaga iloba eta Aia Kruse alaba ere aktoreak dira; Juan Luis Goenaga anaia, berriz, margolaria da. San Telmo museoan egindako elkarrizketa.

Zintak

DON-205

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-05-13
- **Iraupena:** 151 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Amona Ixabel, lagunkoia eta elizkoia

- **Erref:** DON-205/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:29. **Bukatu:** 00:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amona Ixabelek taberna zeukan eta bere lankide alargunak eta biek asko laguntzen zioten elkarri. Lagun asko zituen alde guztietan. Amona oso elizkoia zenez, gerra garaian ere mezetara joaten zen egunero. Gipuzkoako komunisten buruak mezetarako joan-etorrian eskoltatzen zuen.

2. Amona Ixabelen tabernako giroa

- **Erref:** DON-205/006
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:05:11. **Bukatu:** 00:07:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amona Ixabel oso euskaltzalea zen. Bertsozaletasuna berak piztu ziola kontatzen du. Errealeko jokalaria amonaren tabernan elkartzen ziren. Tabernak oso etxeak izaten ziren.

3. Euskara eta euskal kulturaren aldeko jarduna gurasoen tabernan

- **Erref:** DON-205/007
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:07:02. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Aita eta ama ezkondu zirenean gerra ostean, taberna konpondu eta berritu egin zuten. Euskaltzaindiako bilkurak egiten zituzten bertan. Bodegan entseatzen zuen Jarrai antzerki taldeak. Ez Dok Amairu taldekoek ere han entseatzen zuten. Euskarazko liburuen aurkezpenak egiten zituzten tabernan.

4. "Txoria txori" poema mahai-zapietan

- **Erref:** DON-205/009
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:09:17. **Bukatu:** 00:11:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kultura
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

Bere gurasoen tabernan eta etxean kultur arloko taldeak eta jendea elkartzen ziren. Liburuen aurkezpenak egiten zituzten. Amari bururatu zitzaion "Txoria txori" poema mahai-zapietan idaztea, eta bateko eta besteko, azkenean Mikel Laboak kanta egin zuen.

5. Ama ekintzaile antifaxista

- **Erref:** DON-205/010
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:13:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Kontzientzia politiko handia zeukan amak. Antifaxismoan eta Francoren kontrako erresistentzian amak lan handia egin zuela kontatzen du. Etxera eta tabernara poliziak joaten ziren, beraien etxean jende asko bildu eta ezkututzen zelako.

6. Etxean artistak, atzerriko kazetariak... denetarik

- **Erref:** DON-205/011
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:13:51. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Notiziak libreki jasotzeko modu bakarra Radio Paris zen. Irrati hura entzun ahal izateko, debekatutako konexioak egin behar ziren. Imanol kantaria ere joaten zen beraien etxera. Txiki eta Otaegiren epaiketa izan zenean, Suediako kazetariak egon ziren etxean eta haiek laguntzen aritu zen.

7. Etxean mugimendu kultural eta politiko handia

- **Erref:** DON-205/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Etxean eta tabernan mugimendu kultural eta politiko handia zegoen, bereziki

amak bultzatuta. Martuteneko espetxera janaria bidaltzen zuten atxilotuentzat. Amonaren eraginez, ildo politiko askotako jendea egoten zen beraien etxean.

8. Behar zuenari laguntzen

- **Erref:** DON-205/013
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:18:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Ama behar zuenari laguntzen aritzen zen, amonak egin izan zuen moduan, janaria emanez edo bestelako edozein gauzatan lagunduta. Ezkutuan aritzen zen.

9. Ama aktore lanetan

- **Erref:** DON-205/014
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:18:52. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Bere amak Arte Ederrak ikasi nahi zituen eta ezin izan zuen. Aita oso historia zalea zen eta hark ere ezin izan zuen unibertsitatean ikasi. Euskal zinemagintza euskaraz hasi zenean, amak asko lagundu zuen, eta bateko eta besteko, aukerak sortu zitzaizkion aktore lanetan aritzeko.

10. Antzerkia etxean

- **Erref:** DON-205/015
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Etxean zazpi-anai arreba ziren. Geronimo deitzen zioten etxearen laguna zen arotz bati, etxera lanera etortzen zenean, Geronimo indioarena egiten bukatzen zuelako. Amak mozerro pila bat egiten zizkien. Animaliak zituzten etxean, antzerkia egiten zuten, jende eta lagun asko... Oso etxe bizia zen.

11. Gurasoen ausardia ikastolak sortzeko

- **Erref:** DON-205/017
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Karmele Esnal andereño izan zuten ikastolan. Bertan zeuden familiak aipatzen ditu. Bere gurasoen ausardia miresten du. Institutuan beti librez egiten zituzten azterketak. Apustu hori egin zuten gurasoei ez zaiela nahikoa eskertu uste du.

12. Euskara, ikasketetarako ere, gaizki ikusia

- **Erref:** DON-205/018
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara ez zegoen ondo ikusia, eta gutxiago ikasketetarako. Errepresio oso handia bizi izan zuen inguruan. Orduko ikastolari buruzkoak kontatzen ditu. Ez zegoen euskaraz libururik, Xabiartxo eta Martin Txilibitu izan ezik.

13. Muturreko jarrerak gizartean

- **Erref:** DON-205/019
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:32:33. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Euskara batuaren sorrerak harrapatu zituen ikastolan zebiltzala. Garai hartan, oso muturreko jarrerak sortzen ziren gizartean eta oso giro intentsuak ere bai.

14. Ikastolan hausnarketari garrantzia handia

- **Erref:** DON-205/021
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:34:43. **Bukatu:** 00:36:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolan eta lizeoan ibili zenean, eraikin batetik bestera ibili ziren. Ez zen erraza izan euskaraz ikastea. Metodologia aldetik partaidetza asko sustatzen zen. Ez zen hain akademizista; hausnarketaren aldekoa zen gehiago.

15. Lehenengo urteak antzerkian

- **Erref:** DON-205/022
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:36:54. **Bukatu:** 00:40:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Gurasoek lan asko egiten zuten, taberna egunero irekitzen baitzen. Ikastolan berehala hasi zen antzerkia egiten. Argi zeukan antzerkia egin nahi zuela. Hemen egiten zen antzerki profesionala kalean egiten zen; oholtzaren gaineko guztia muntatu behar izaten zuten. Gero Madrilen ikasketak egin zituen eta Antzerki sortu zenean, bertan ikasi zuen. Ordurako, talde batzuk profesionalizatzen hasita zeuden.

16. Euskal antzerkiaren profesionalizazioaren hastapenak

- **Erref:** DON-205/023
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:40:29. **Bukatu:** 00:44:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Maskarada antzerki taldearena izan zen euskaraz modu profesionalean egindako lehenengo lana: Dario Foren "Pistolaren begi zuri-beltzak". Zaila izan zen euskal antzerkiaren profesionalizazioa martxan jartzea, euskarari loturikoa boluntarioa izateko tradizioa zegoelako, frankismoaren eraginez.

17. Euskal telebistako lehen fikzio lanak

- **Erref:** DON-205/024
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:44:38. **Bukatu:** 00:48:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Telebistan fikzioa egiten aurrenekoak "Txirri, Mirri eta Txiribiton" izan ziren. "Amona Martxelon" ipuin kontalariarena egiten zuen Aizpeak. Elena Iruretarekin batera, "Hau da hau!" saioa egin zuen gero. Lan-taldeko kide batzuk izendatzen ditu. Lan egitea oso zaila zela dio, baina oso pozik. Gero "Bi eta bat" egin zuten.

18. Telebistan gidoilari eta programak zuzentzen

- **Erref:** DON-205/025
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:48:19. **Bukatu:** 00:50:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

Esketxak eta gidoiak sortzen aritzen ziren. Gidoilari moduan hasi zen eta programak zuzentzen ere aritu zen. Dena berria izateaz gain, emakumeak ziren.

19. Antzezlanak idazten hasi zenekoa

- **Erref:** DON-205/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:50:09. **Bukatu:** 00:51:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Antzerkiak desoreka handia sortzen zion egunerokoan. Antzerkia idazten hasi zen. Donostia Kutzako lehiaketa irabazi zuen berak idatzitako lanak. Bere burua kokatzeko balio izan zion. New Yorkera joan zen ikastera.

20. "Zeru horiek" filmaz

- **Erref:** DON-205/028
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:53:29. **Bukatu:** 00:57:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Angel Amigok eskatu zion Bernardo Atxagaren "Zeru horiek" lana moldatzeko, euskarazko fikziozko lan bat egiteko lehenengo aldiz espainiar telebistarentzat. Hiru egunez egon zen hartara emana. Gerora, zuzentzeko aukera eman zion, eta hiru astean grabatu zuten. Nagore Aranburu izan zen protagonista.

21. "Zeru horiek" filmaz II

- **Erref:** DON-205/029
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:57:23. **Bukatu:** 01:01:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Miarritzeko FIPA jaialdian parte hartu zuten. "Zeru horiek" espainiar telebistan lehenengo aldiz ematear zeudela, Madrilgo (Espainia) Barajasko aireportuko T4 terminaleko atentatua gertatu zen. Orduan, ez zuten eman. FIPAk jaialdiaren ibilbideko 19.urteko ordezkari moduan aukeratu zuten.

22. "Bihotz bi" eta "sukalde kontuak" lanak

- **Erref:** DON-205/030
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:01:34. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Horren ondoren "Gorde nazazu lurpean" eleberriaren moldaketa egin zuen, "Bihotz bi" izeneko. Ondoren, "Sukalde kontuak" egiteko aukera izan zuen.

23. Sormena balioan jarri beharra

- **Erref:** DON-205/031
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:03:30. **Bukatu:** 01:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Sormena balioan jartzeko beharra aldarrikatzen du, arlo guztietan. Gazteek hartu dute erreleboa. Urte askoan euskarazko telebistan ez da fikziorik egin.

24. "Bidea eraikitzen" dokumentalaz eta bizikidetzaz

- **Erref:** DON-205/034
- **Iraupena:** 0:05:36. **Hasi:** 01:10:52. **Bukatu:** 01:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Kultur aniztasuna » Bizikidetzaz proiektuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

"Bidea eraikitzen" dokumentala egin dute, Donostiako hiritar foroan bizikidetzaz lantzen aritu direnek. Elkarbizitza eraikitzea gizartearen ardura dela dio. Gaiari buruzko iritzia ematen du.

25. Emakumeen indarra

- **Erref:** DON-205/035
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:16:28. **Bukatu:** 01:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Amarengandik eta amonarengandik jaso du aurrera egiteko indarra. Elenak (Iruretak) behin esan zion: "mutila bazina, zalantzan jarriko zenuke zure burua? Ez, ezta?".

26. Aktore lana, sexu harremanen truke

- **Erref:** DON-205/036
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:18:10. **Bukatu:** 01:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero indarkeria
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Madrilera joan zenean ikastera, gogoan dauka oso ohikoa zela film batean aktore lana lortzeko zuzendariarekin edo norbaitekin sexu harremanak eduki beharra izatea.

27. Emakumeentzat, batzuk oztopo, beste batzuk laguntzaile

- **Erref:** DON-205/037
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:19:28. **Bukatu:** 01:22:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Pertsona batzuek emakume moduan baloratu dituztela kontatzen du, baina ez gehiengoak. Eginez eraiki dutela bidea azaltzen du. Txorakeria eta itsuskeria asko jasan behar izan dituzte. Bizitzan lagundu dutenak eskertzen eta aipatzen ditu.

28. Emakumeentzat, lekua hartzea zail

- **Erref:** DON-205/038
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:22:51. **Bukatu:** 01:24:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Momentu oso gogorak bizi izan ditu. Haurdunaldian moteltzat hartu zuten, adinean gora egin ahala ez diote deitzen... Emakumeentzat lekua hartzea oso zaila izan zen.

29. Gizarte matxistan, ereduak eraikitzea bide

- **Erref:** DON-205/040
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:25:40. **Bukatu:** 01:28:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Jarrerak baino, gizartea zela matxista dio. Feminismoa itsuskeria zela kontatzen du eta oraingo ikuspegitik ezin direla ulertu gertatutakoak. Ereduak eraikitzea beharrezkoa dela dio.

30. Etxepare Institutuan zuzendari

- **Erref:** DON-205/041
- **Iraupena:** 0:05:21. **Hasi:** 01:28:06. **Bukatu:** 01:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Etxepare Institutuko zuzendari izateko baiezkua eman zueneko kontakten du. Aktore moduan batetik bestera ibili behar izaten dutenen ezaugarriak aipatzen ditu. Lan berezia eta erronka handia izan zirela dio. Oso harro dago egin zuen lanarekin, osasuna galdu zuen arren.

31. Kulturen, erakundeen babes handiagoaren beharra

- **Erref:** DON-205/043
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:37:14. **Bukatu:** 01:40:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Jendeak kultura kontsumitzen duela dio, baina erakundeen aldetik benetako babesa behar dela azaltzen du. Antzerkian, adibidez, talde publikorik ez egotea ez du ulertzen.

32. Antzerkiaren pizkundea eta gerraren eragina

- **Erref:** DON-205/044
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:40:02. **Bukatu:** 01:43:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra aurreko antzerkiaren pizkundea abertzaletasunari eta erlijioari lotuta gertatu zen. Urrietako Lurdes Arizmendiri elkarrizketa egin zion; hiru antzerki talde zeuden. Antzerkia euskararen aldeko ekimen kulturala zen. Gerra garaian, deklamazio eskola bertan behera geratu zen, eta ondoren, Maria Dolores Agirrek hartu zuen ardura.

33. Antzerki sozial modernoa

- **Erref:** DON-205/045
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:43:47. **Bukatu:** 01:46:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

60. hamarkadan abertzaletasunaren zatiketa gertatu zen. Gazteek antzerkiaren bitartez aldarri sozial eta politikoak egin nahi izan zituzten. Antzerki amateurrek ziren denak ere, baina pixkanaka profesionalizazioa etorri zen.

34. Antzerki amateurrek eta profesionalak

- **Erref:** DON-205/046
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:46:41. **Bukatu:** 01:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Antzerki amateur taldeen elkarteak sortu zen. Antzerki konpainia profesionalak, normalki, euskaraz umeentzat egiten zuten eta gaztekeraz helduentzat. Antzertiren bitartez, joera sortu zen obra berdinak bi hizkuntzetan sortzeko. Horrek euskarazko antzezlanen pobretzea eragin zuen.

35. Antzerti, goi-mailako eskola

- **Erref:** DON-205/047
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:48:50. **Bukatu:** 01:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Antzerti goi-mailako eskola izan zen, baina ez zen kreditu aitortzarik landu. Diplomak ez zuen ezertarako balio. Irakasle oso onak eduki zituzten. Antzerti bertan behera geratu izanak, euskal antzerkia kaltetu zuela dio, eta kontu horretan badagoela ardura politikoa.

36. Guggenheim proiektuak eragindako kaltea kulturari

- **Erref:** DON-205/048
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:51:00. **Bukatu:** 01:52:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Pena dauka oso ekipo eta profesional onak izanik, Madrilera joan behar izan zuela jende askok. Azaltzen du nola Guggenheim proiektuaren aldeko apustuak ekarri zuen kulturako aurrekontuak ikaragarri jaitea, eta besteak beste, zinemagintzaren aldeko apustuak bertan behera geratzea, hamabost urtetako desertua sortuz. "Zeru horiek" eta "Aupa Etxebeste" izan ziren desertu horrekin hautsi zutenak.

37. Euskal zinemagintza eta fikzioa, babesaren beharrea

- **Erref:** DON-205/049
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:52:58. **Bukatu:** 01:54:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Euskal zinemagintzarentzat ez dago arriskuaren aldeko apustu nabarmenik. Serie batzuk ekoizten hasi da EITB baina askoz gehiago egon beharko luke.

38. "Goenkale" telesailaren ekarpena

- **Erref:** DON-205/051
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:55:07. **Bukatu:** 01:56:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista

Laburpena:

"Goenkale" telesailak lan aldetik egonkortasuna eman zien aktoreei. Aktore batzuk ezagun egin ziren eta antzerkira jendea gerturatzea eragin zuen. Jende berri askori eman zion lanerako aukera. Testatzeko aukera eman zuen.

39. Umeek antzerkia egiteko gida

- **Erref:** DON-205/052
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 01:56:58. **Bukatu:** 02:01:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Umeek antzerkia egiteko gida bat egin du, betidanik egiteko zegoela uste zuelako. Eskoletan antzerkia egiteko proiektu bat zeukan eskuartean, gidaz gain. Gidak jasotzen duena azaltzen du.

40. Landu dituen eta lantzen ari den gaiak

- **Erref:** DON-205/053
- **Iraupena:** 0:04:31. **Hasi:** 02:01:32. **Bukatu:** 02:06:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Landu izan dituen eta lantzen ari den gaiak eta lanak: genero indarkeria, indarkeria, historia...

41. Euskararen aldeko borroka, denei lekua eginez

- **Erref:** DON-205/056
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 02:12:02. **Bukatu:** 02:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara bere hizkuntza dela dio, bere pentsamendua eta etorkizun oparoa. Bihotza, etxea, gertutasuna... eta beste hainbat ezaugarri aipatzen ditu. Euskararen aldeko borroka aldarrikatzen du, denentzat lekua dagoela azalduz.

42. Danborradarekiko ikuspegia

- **Erref:** DON-205/059
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 02:20:29. **Bukatu:** 02:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Danborrada gizonen lotutako gauza moduan ikusten zuten etxean. Amona lehenbiziko danborradetako amandrea izan zen. Festa bizitzen zuten baina danborradan ez zuten parte hartzen. Hainbat konpartsa proposatuko lituzke.

43. Elkarbizitza aldarri

- **Erref:** DON-205/060
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 02:24:14. **Bukatu:** 02:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Amonarengandik eta amarengandik jasotako baloreak aipatzen ditu. Berak ere testigua pasatzeko ardura sentitu izan duela dio. Belaunaldi askoren arteko harremana aldarrikatzen du.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com